

**KALDERERO**  
**HUNGARIARREN KORUA**

Zein ederra zein xarmanta  
Donostiko lurra ta hiria  
Herri jator donostiarra  
Agurtuz dugu atsegina.

Hungariako kalderero gara  
etorririk Donostiara.  
Laister Momok argituko digu  
nahiz eguna nahiz eta gaba.  
*Ihauteri alaiaren*  
*iragarle gu gara.* (bis)

Bai! Atsegina eta algarra.

Aizak ...  
Jozak ...  
Jozak ...

Zein ederra .....

*Herriz herri gabiltza gu beti*  
*ederrez begiak aserik* bis

*baina inon ez dugu ikusi*  
*hemen bezain neska ederrik* bis

*Gerri mehea eta liraina*  
*ezpainak gorri eta mardul.* bis

*Gure arteko bat bazina*  
*zuk begiez metala urtu* bis

bai, bai, urtu; bai, bai, urtu.

**KALDERERO**  
**HUNGARIARRAK LANEAN**

Adiskide maiteok, ekin ba lanari.

Kriseilu, lapiko, pertzak,  
burruntzali eta eltzeak bis  
aise konpontzen gu gara  
merke eta trebeak.

Eta lana musutruke  
pozik egingo genuke bis  
hor goiko neska politek  
eskatzten badigute.

Donostiar neska panpoxak  
ez al dugu beste lanik bis  
aurtengoz badugu aski  
eta goazen aurrera.

Kontu izan, agur gisa  
kaldereroek kantatzean,  
berriz ere egun batez, bis  
joko dugula tak tiki tak.

Donostiar neska ...

